

PASAIAKO
HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN
AURRERAKINA
**HERRITARREK PARTE HARTZEKO
PROGRAMA**

2020KO MARTXOA



EDUKIA

1. HAPO-REN ERREDAKZIO-PROZESURAKO PARTAIDETZA.....	3
1.1 SARRERA ETA IKUSPEGI OROKORRA.....	3
1.2 LEGE-ESPARRUA.....	4
1.3 PARTAIDETZAREN MUGAK.....	5
2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA.....	6
2.1 HELBURUAK.....	6
2.2 PARTE HARTZEKO METODOLOGIA ETA ESTRATEGIA.....	7
3. PARTE HARTZEKO GIDA. AURREIKUSITAKO EKINTZAK.....	10
3.1 PLANTEAMENDU OROKORRA.....	10
3.2 DENBORA-PLANIFIKAZIOA.....	10
3.3 PARTE HARTZEKO EKINTZEN DESKRIKAPENA.....	13
3.4 KOMUNIKAZIO-PLANA HAPO-N ZEHAR.....	16
3.5 PARTAIDETZAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	18
4. GENERO-IKUSPEGIA ETA INGURUMEN-KUDEAKETA HAPO-REN PARTAIDETZAN.....	20
4.1 HAPO-N GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EDUKIAK.....	20
4.2 LAN-BIZITZA, PERTSONALA ETA FAMILIAKOA BATERATZEKO NEURRIAK.....	20
4.3 JASANGARRITASUNARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO EDUKIAK.....	22
4.4 INGURUMEN-KUDEAKETA HOBETZEKO NEURRIAK.....	22

1. HAPO-REN ERREDAKZIO-PROZESURAKO PARTAIDETZA

1.1 SARRERA ETA IKUSPEGI OROKORRA

Herritarrek parte hartzearen helburua herritarrak erabakitze-prozesuen parte izatea da; eta kasu honetan, Pasaia Hiri Antolamenduko Plan Orokorren erredakzioan.

Azken hamarkadetan, herritarren parte-hartzea toki-administrazioaren eta gizartearen hiri-mailako askotariko arazoak konpontzeko funtsezko estrategia izan da, baita aurrerapauso garrantzitsu bat ere udalerrri barneratzaileagoak lortzeko. (ONU-Habitat, Hiri Gobernagarritasun Onaren Mundu Mailako Kanpaina).

Pasaia HAPOn parte-hartzea hainbat jardueratan oinarrituko da, eta horien bitartez, eztabaida publiko eta sozialak sortuko dira tokiko kudeaketako gai zehatz baten inguruan: hiri-antolamendua. Horrela, Pasaia etorkizuneko plangintzari buruzko hausnarketarako topaguneak sortuko dira eta herritarren ekarpenek Planaren eduki teknikoak aberastuko dituzte, emakumezko zein gizonezkoen ikuspegia kontuan hartuz.

Prozesuaren jomuga herritarren ekarpenak agiri teknikoetan jasotze hutsatik haratago doa. ikuspegi orokorra da **herritarren parte-hartzea** Pasaia HAPOn **erredakzio-prozesuan barneratzea, ekarpenak etengabe egiteko iturri gisa** eta **eztabaida-gune gisa**, talde teknikoaren hausnarketak eta formulazioak bideratzeko.

Hots, **hirigintza-azterketako eta -idazketako prozesuek eta partaidetza-prozesuak elkarri eragingo diote eta bata bestea garatzen lagunduko dute etengabe.**

1.2 LEGE-ESPARRUA

Euskadin, lege-esparrua **Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak** ezartzen du, honako bi artikuluetan: 8. Artikulua.- Herritarren parte-hartzearen printzipioa; eta 108. artikulua.- Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.

8. artikulua.- Herritarren parte-hartzearen printzipioa.

1. *Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.*
2. *Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartza berarekin:*
 - a. *Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiatzatu beharrik gabe.*
 - b. *Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.*
 - c. *Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.*

108. artikulua.- Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa..

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a. *Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitze erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko*

- b. Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- c. Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako lege eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.*

Pasaiako HAPOren Herritarrek Parte hartzeko Programa honek EAeko 2/2006 lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitako legeko eskakizunetik haratago doan parte-hartzea proposatzen eta ahalbidetzen du, oreka onargarri baten bila.

1.3 PARTAIDETZAREN MUGAK

Herritarren parte-hartzeak HAPOrako ekarpenak bilduko baditu ere, **ekarpen horiek ez direla lotesleak eta ezin direla izan** esan beharra dago. Hori horrela da, alde batetik, eskumena Udalarena delako, eta, bestetik, HAPOk berak hainbat muga dituelako. HAPO udal-tresna juridiko bat izan arren, udalaz gaindiko administrazioetatik datozen hainbat baldintza aintzat hartu behar ditu. Hala, HAPOk Estatuko, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko legeria eta araudia jaso behar ditu; adibidez, kostaldee, urei, errepideei, ondareari edo ingurumenari buruzkoak. Zehazki, etxebizitzaren arloan, HAPOn antolatu daitezkeen etxebizitza berrien kopurua Eusko Jaurlaritzak arautzen du, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAGen) bidez, baita Lurralde Plan Partzialaren (LPParen) bidez ere eskualde mailan.

2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

2.1 HELBURUAK

Pasaia HAPOn erredakzio-prozesuan herritarren parte-hartzeak, **herritarrenTZAKO Pasaia bat antolatzeaz gain**, antolamendu hori **herritarreKIN BATERA egiteko asmoz**, hiru helburu nagusi ditu:

1. **Pasaitarrak informatu eta trebatzea** HAPOn idazketa-faseetan zehar; bai informatuta egon nahi dutenei, bai parte hartu eta ekarpenak egin nahi dituztenei. Herritarren parte-hartzea informazio-oinarri on batetik abiatu dadin, ekintzek eta materialek edukiak erraz ulertzen direla bermatu beharko dute.
2. **Benetako parte-hartze bat aurrera eramatea, eraginkorra dena eta ahal bezain pertsona-kopuru handi eta anitzena kontuan hartuko duena.** Parte-hartzaileen artean besteak beste gizarte-eragileak, elkartekideak eta elkarteetakoak ez diren herritarrak, adin guztietakoak (haurrak eta gazteak barne) hartuko dira kontuan, **kanal anitzen** bitartez (aurrez aurrekoak eta digitalak). HAPOn edukia hainbat faseetan hausnartzea, eztabaidatzea, egiaztatzea eta argitzea ahalbidetuko duten kanalak erabiliko dira, eztabaida publiko eta sozial bat sortuko dutenak tokiko kudeaketari buruzko gai zehatz baten inguruan, hala nola, hiri-antolamenduaren inguruan.
3. **Planaren proposamenei ekarpenak egitea, adostasun kolektibo handiago bat lortuz.** Ikuspuntu tekniko-politiko herritarrenarekin osatu nahi da, esperientzialagoa baita, gizarte-talde, adin eta esperientzia aniztasunean oinarritutako ikuspuntuak aintzat hartuz eta eduki tekniko aberastuz. Alderdi honek garrantzia handia du HAPOn hasierako faseetan, adibidez, Aurrerakin-fasean.

2.2 PARTE HARTZEKO METODOLOGIA ETA ESTRATEGIA

2.2.1 Elkarlaneko diseinua

Pasaia HAPOn erredakzio-prozesuan zehar erabiliko den metodologia orokorrak, fase bakoitzean ekintza desberdinak izango ditu eta **elkarlanean garaturiko diseinuan** oinarrituko da. Parte-hartze prozesuko arduradunek egiaztatutako metodologia bat da.

Elkarlaneko diseinuak bi ideia nagusi hartzen ditu kontuan: alde batetik, proiektura **profil berriak** gehitzea eta, bestetik, **helburu partekatuak** lortzea. Profil berri horiek herrian era batera edo bestera parte hartzen duten pertsonak dira (Pasaia herritarrak, banaka edo elkarteka, gizarte-eragileak, era askotariko kolektiboak, etab.). Pertsona horiek ondorioztatuko den HAPOn onuradunak izango dira eta lanketa-prozesuan zehar “**esperientzian adituak diren pertsonen**” papera izango dute.

Teknikariek, pertsona horien esperientzietatik abiatuta, ezagutza eta tresna egokiak eskainiko dituzte, parte-hartzaileen elkarlaneko ekarpenak **jaso, bideratu eta forma emateko**.

2.2.2 Estrategia orokorra: prestakuntza + informazioa + partaidetza + ebaluazioa

Planteatutako helburuak lortzeko asmoz, **partaidetza-estrategia** 1. Fasearen hasieran definitzen da **Herritarrek Parte hartzeko Programa** honen bidez, Pasaia Udalak egiaztatu eta baliozkotzat eman ondoren. Estrategia Planaren fase desberdinetan egiten den iterazio-metodologia batean datza. Metodologia horrek aukera ematen du ikuspuntu teknikoa eta herritarra ondo artikulatzeko. Horretarako, eduki eta materialak prestatu ondoren, herritarrei eta parte hartuko duten eragileei informazioa eskainiko zaie. Jarraian, partaidetza-prozesuaren berezko ekintzak abian jarriko dira (aurrez aurrekoak zein digitalak). Eta azkenik, ekarpenen laburpena eta ebaluazio bat egingo da.

Horrela, Planaren fase bakoitzari dagokion lan teknikoa gauzatu ondoren, parte hartzeko eta komunikatzeko edukiak eta materialak prestatuko dira eduki teknikoak “birmoldatuz”, herritarrek ulertu ahal izan ditzaten; hurbila, eroso, bisuala, atsegina eta edozein biztanlerako ulergarria den formatu batean. Herritar guztiengana iritsiko diren komunikazio- eta partaidetza-bideak ezarri ahal izateko, funtsezkoak dira honako ekintza hauek: edukiak egokitzea, datuak bistaratzea eta eragileen mapa.

Hori guztia prestatu ondoren, hurrengo pausua **informatzea** da. Alde batetik, parte hartzeko prozesua (eta fase horretan garatuko diren ekintzak) azaltzeko, eta, bestetik, HAPOn fase zehatz horretako eduki teknikoak ezagutarazteko; bai aurreko faseetan bai Aurrerakinean, Hasierako Onespenean, Behin Behineko Onespenean eta Behin Betikoan. Helburua partaidetza informatua lortzea da. Egingo diren ekintzen artean topa daitezke (ez HAPOn fase guztietan, baina bai erredakzio-prozesu osoan): erakusketak (bisita gidatuekin), informazio-hitzaldiak, kartelak, postontzietara iritsiko diren liburuxkak, informazio-bideoak, bandoak atarietan, prentsa-oharrak eta prentsaurrekoak, webgunea, artikulua udal aldizkarietan eta tokiko prentsan eta beste hainbat.

Informazioa eman eta gero, **partaidetza**-ekintzak hasiko dira, HAPOn faseen arabera bide desberdinen bitartez. Ekintza horiek aurrez aurrekoak edota digitalak izango dira, fasearen arabera, ahalik eta pertsona-kopuru eta -aniztasun handiena lortzeko. Xedea da askotariko parte-hartzea, plurala, barneratzailea eta parekidea lortzea. Deialdian arreta jarriko da eta aurrez aurreko saioak erraztu eta dinamizatuko dira, eragile-talde desberdinekin: banakako herritar edo elkarteekin, emakumeen elkarteekin, adineko pertsonekin, gazteekin, etab. Baita ekonomia-arloko eragileekin, udal-teknikariekin, ordezkari politikoekin eta Plangintzaren Aholkuri Kontseiluarekin ere. Lehendik dauden foroak aprobetxatuko dira, eta Udalarekin batera zehaztuko da beste kolektibo interesgarri batzuk dauden ala ez (kirolariak, langabeak, etorkinak, etab.). Aurrez aurreko saioez gain, HAPOrako berariazko webgune bat sortuko da, parte hartzeko plataforma digital bat izango duena.

Azkenik, **ebaluazioan eta ondorioetan**, kanal desberdinen bidez jasotako ekarpenak bildu eta laburtuko dira hizkuntza teknikoago batera “birmoldatzeko”, eta HAPOn kontuan har daitezzen. Burutuko diren berariazko ekintza zehatzak honako hauek dira: partaidetza-adierazleen ebaluazioa, ekarpenen sintesia, memoria kuantitatibo eta kualitatibo bat idaztea, ondorioak ateratzea eta herritarrei ezagutzera ematea.

Laburbilduz, dokumentu bereizi batean ekarpenak jasotzeaz gain, parte-hartzea Pasaiako HAPOn idazteko prozesuan barneratzen da, etengabeko **ekarpen-iturri** gisa eta **eztabaida-gune** gisa, talde teknikoaren gogoetak eta formulazioak bideratzeko. Alegia, hirigintza-azterketako eta -eraketako prozesuek eta parte hartzeko prozesuak etengabe elkarri eragingo diote.

2.2.3 Komunikazioa HAPOn partaidetza-prozesuan

Komunikazioa funtsezkoa da Pasaiako HAPOn parte-hartzea bermatzeko eta parte-hartzen duten pertsonen informazioa ezagutzeko. Horregatik, Herritarrek Parte hartzeko Programa honetan, Komunikazio Plan gisa **helburuak, materialak, tresnak eta kanalak** deskribatzen dira,

ekimena **gizarteratzeko eta zabaltzeko**, parte hartzeko une guztietan bereziki.

2.2.4 Parte hartzera gonbidatuko diren eragileak

Herritarrei buruz orokorrean hitz egiteaz gain, garrantzitsua da parte hartzeko oinarrizko eragile-taldeak bereiztea, komunikazio- eta partaidetza-estrategia bat diseinatu ahal izateko eta, halaber, jarraipena egin ahal izateko, edukiak eta materialak indartuz eta aldatuz, parte-hartze plurala, askotarikoa, inklusiboa eta parekidea lortzeko, baita pertsona-kopuru eta -aniztasun handiena ere.

Planteatzen diren eragile-talde handiak bost dira. Horietatik nagusia lehenengoa da, eta jarraian hurrengo biak. Teknikarien eta udal-ordezkarien parte-hartzeari dagokionez, haien parte-hartzea guztiz beharrezkoa bada ere, gainerako parte-hartzaileen ehuneko txiki bat izan behar da beti.

Pasaiaiko HAPOn parte hartzeko eragile-taldeak

1. Pasaian bizi direnak
2. Tokiko elkarteak
3. Pasaian lan egiten dutenak
4. Udal-teknikariak
5. Udal-ordezkariek

HAPOn 1. Fasean, parte hartzera gonbidatuko diren eragileen mapa bat definituko da. Mapa hori hurrengo faseetan berrikusiko eta eguneratuko da, beharrezkotzat jotzen denaren arabera.

3. PARTE HARTZEKO GIDA. AURREIKUSITAKO EKINTZAK

3.1 PLANTEAMENDU OROKORRA

Metodologiari buruzko atalean deskribatutako **prestakuntza-, informazio-, partaidetza- eta ebaluazio-**ekintzak HAPOn faseetan zehar garatuko dira.

3.2 DENBORA-PLANIFIKAZIOA

Fase bakoitzean aurreikusitako eduki eta ekintzen denbora-planifikazioa hau da:

ERREDAKZI O-FASEA	EDUKIA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK FASEKA (XEHAUTA)
1.FASEA Informazioa eta Diagnosia	Fase honetan Plana idazteko garrantzitsua izan daitekeen <u>informazio</u> guztia bilduko da.	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrek Parte hartzeko Programa (hasierako bertsioa) Komunikazioa Planaren atal gisa, eta informazio eta dokumentazio eskatzea. Komunikaziorako edukiak eta materialak prestatzea: logoa, ikonoak, webgunea, prentsa-oharra, kartelak eta bideoa. HAPOri buruzko informazio-saioak. Lau saio, bat barrutika, edo udalerrri osorako saio bat edo gehiago. Diagnosi-galdetegi digitala. Herritarren karpa, udalerrriko espazio publikoetan, HAPOri buruz informatzeko. Parte hartzeko edukiak eta materialak prestatzea: gaiak, galderak (partaidetza digitalean eta aurrez aurreko saioetan erabiltzeko). Haur eta gazteentzako ekintzak, egungo kanalak erabiliz

		<p>(Sailarteko Batzordea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzeko saioak. Saio bat barrutika edo udalerrri osorako saio bat edo gehiago. • Partaidetzari eta jasotako ekarpenei buruzko laburpen-txostena. • Materialak eta dokumentuak webgunera igotzea eta prentsa-oharra.
<p>2.FASEA Aurre Aurrerakina eta Hasierako Agiria</p>	<p>Fase honetan Aurre Aurrerakina prestatuko da, proposamen-izaerakoa. Bere edukiak parte hartzeko prozesuaren emaitzei erantzungo die. Hasierako Agiriak ingurumen-kontuak jasoko ditu IAEaren prozesua hasteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Fase honetako komunikaziorako edukiak eta materialak prestatzea. • HAPOri buruzko informazio-saioak. Lau saio, bat barrutika, edo udalerrri osorako saio bat edo gehiago. • Haur eta gazteentzako ekintzak, egungo kanalak erabiliz (Sailarteko Batzordea) • Galdetegi digitala. • Parte hartzeko saioak, HAPOn gaiei buruzkoak. • Partaidetzari eta jasotako ekarpenei buruzko laburpen-txostena. • Materialak eta dokumentuak webgunera igotzea eta prentsa-oharra.
<p>3.FASEA Aurrerakina eta Ingurumen Azterketa Estrategiko a (IAE)</p>	<p>Aurrerakinak udalerrriaren etorkizuneko <u>irudi orokor</u> bat lortzen saiatuko da. Beraz, eratuko diren dokumentuak asmo orokorrekoak izango dira, eta lana <u>udalerrri-edota auzo-mailan</u> egingo da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hurrengo faserako (Aurrerakinaren Jendaurreko Erakustaldirako) komunikaziorako edukiak eta materialak prestatzea
<p>4.FASEA Jendaurreko Erakustaldi a (Aurrerakin a)</p>	<p>Aurrerakinaren jendaurreko erakustaldi-epean, balizko <u>alternatibak</u> eztabaidatu eta <u>iradokizunak</u> jasoko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Materialak eta dokumentuak webgunera igotzea eta prentsa-oharra. • Erakusketa ibiltaria eta erakusketan zeharreko bisita gidatuen koordinazioa. • Herritarren karpa, udalerrriko espazio publikoetan, HAPOri

		<p>buruz informatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haur eta gazteentzako ekintzak, egungo kanalak erabiliz (Sailarteko Batzordea) • HAPOnen Aurrerakinaren edukiei buruzko informazio-saioak. • Banakako kontsultak. Herritarren arreta zerbitzua. Aurretiko hitzordua • Partaidetzari, komunikazioari eta jasotako ekarpenei buruzko laburpen-txostena.
<p>5.FASEA Irizpide eta Helburuei buruzko agiria</p>	<p>Aurreko fasearen ondoren, <u>irizpideak eta helburuak</u> adostuko dira. Horiek Hasierako Onespenaren agiria idazteko erabiliko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • (Fase honetan ez dago parte hartzeko ekintzarik)
<p>6. FASEA Hasierako Onespena</p>	<p>Fase honetan, Planak xehetasunez sakontzen du <u>gai partikularretan</u>, Aurrerakinean ezarritako jarraibide orokorreari jarraituz. Hasierako Onespenaren dokumentua <u>HAPOnen lehen zirriborro osoa</u> da, <u>antolamendua</u> jasotzeaz gain, <u>arautzen</u> baitu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 7. Fasean (Hasierako Onespenaren Jendaurreko Erakustaldian) parte hartzeko eta komunikatzeko edukiak eta materialak prestatzea.
<p>7.FASEA Jendaurreko Erakustaldi a (Hasierako Onespena)</p>	<p>Jendaurreko Erakustaldiak dokumentua ezagutarazteko balio du. Horri <u>alegazioak</u> jasotzeko epea irekiko da eta horiei erantzungo zaie.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakusketa eta erakusketan zeharreko bisita gidatuen koordinazioa. • Informazio-saioa. • Partaidetzari eta jasotako ekarpenei buruzko laburpen-txostena.
<p>8.FASEA Behin Behineko Onespena</p>	<p>Onartutako alegazioak Behin Behineko Onespen agirian jasoko dira, <u>HAPOnen bertsio berri bat</u> eratzuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa: materialak eta dokumentuak webgunera igotzea eta prentsa-oharra. • Informazio-saioa.

	<p>Udalak HAPOren bertsio berri hori behin-behineko onetsiko du.</p>	
<p>9.FASEA Behin Betiko Onespena</p>	<p>Behin-behineko onespena jaso ondoren, agiria Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera helaraziko da. Jasotako oharrekin, <u>HAPOren bertsio berri bat</u> eratuko da Udalak behin betiko onar dezan. Behin betiko onetsi ondoren, <u>edukia argitaratuko da</u> eta <u>indarrean</u> HAPO egongo da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa: materialak eta dokumentuak webgunera igotzea eta prentsa-oharra. • Informazio-saioa.

3.3 PARTE HARTZEKO EKINTZEN DESKRIBAPENA

3.3.1 Informazio-saioak

Informazio-hitzaldiak 1., 2., 4., 7., 8. eta 9. fasetan aurreikusten dira eta beren helburua HAPOn aurreratutakoaren berri ematea da, prozesua aurrera doan heinean. Hauek dira hitzaldien oinarritzko atalak, fasearen arabera eduki handiagoko edo txikiagokoak:

- Sarrera eta hasierako galderak (Zer da HAPoa? Zertarako balio du? Zer arautzen du? Etab.)
- Parte hartzeko prozesua: noiz eta nola parte hartu (fasearen arabera)
- Pasaiako HAPOn edukiak fase horretan: funtsezko gai eta gakoetan oinarritutako azalpena, baita bakoitzari buruzko informazio garrantzitsua ere eta dokumentazio grafiko/kartografikoan adierazita.

Informazio-saioak udal-ekipamenduetan izango dira. Lau saio, Pasaiako barruti bakoitzerako bat (Antxon, Donibanen, San Pedron eta Trintxerpen) edo udalerrri osoarentzako saio bat edo gehiago izango dira.

3.3.2 Herritarren karpak

1. eta 4. faseetan herritarren karpak udalerriko espazio publikoetan ezarriko dira, modu ibiltarian, lau barrutietan (Antxon, Donibanen, San Pedron eta Trintxerpen).

Karpek informazioa (*roll-up*) eta gutxienez pertsona bat izango dute, karpak hurbiltzen direnei HAPOrri eta fase horietan parte hartzeko ekintzei buruzko informazioa emango diena,

3.3.3 Erakusketak

4. eta 7. faseetan Aurrerakinaren (4. fasekoaren) agiriari eta Hasierako Onespenaren (7. fasekoaren) agiriari buruzko erakusketak egingo dira.

Ahal dela, erakusketak formatu handiko eta erraz muntatu eta desmuntatzeko moduko panelen bidez egingo dira (*pop-up* motakoak, formatu handikoak), eta, horien osagarri gisa, goitik beherako panel txikiagoak erabiliko dira, *roll-up* motakoak. Horrek, lekuz aldatu ahal izateko aukera ematen du, beharrezkoa izanez gero; erakusketak toki

berean egon edo lekuz aldatu daitezke (muntatze eta desmuntatze erraza dela eta), Pasaiako barruti batetik bestera (Antxora, Donibanera, San Pedrora eta Trintxerpera) eraman ahal izateko.

Edukia fase bakoitzean berrikusiko da eta informazio hitzaldien hiru atalen arabera egituratuko da, material grafikoak pisu handiagoa duela. Informazio-saioetan bezala, erakusketak ere udal-ekipamenduetan egingo dira.

3.3.4 Bisita gidatuak erakusketetan

Osagarri gisa, 4. eta 7. faseetan, erakusketetan zeharreko bisita gidatuak egin eta koordinatzeko aukera egongo da. HAPOn edukia fase horietan azaltzeko, erakusketak berak euskarri gisa erabiliz.

3.3.5 Partaidetza digitala

Parte hartzeko prozesuaren atal nagusia aurrez aurrekoa bada ere, parte-hartzea eta komunikazioa osatzeko, Pasaiako HAPOrako berariazko webgune bat garatuko da, parte-hartze digitalerako tresna batekin batera. Webgune hori komunikaziorako, parte hartzeko eta proposamenak egiteko euskarri bat izango da. Plataforma eskuragarri egongo da prozesurako egokitutako domeinu batetik abiatuz eta antzeko egitura eta diseinu grafiko bera izango du, erabilera errazteko. Pertsona guztiek erabiltzeko moduko diseinu bat egingo da: *responsive design*-a jarraituz, elebitan eta (proiektuaren arabera) tamaina handiagokoak eta sinpleagoak diren ikonoak sartzeko aukera izango duena.

Parte-hartzea anonimoa izango da, eta parte-hartzailearen profilari buruzko datu anonimoak baino ez dira jasoko. Datu horiek partaidetzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren partaidetzaren adierazleetan sartuko dira.

Pasaiako HAPOn webgunea oinarrizko komunikazio-elementua izango da, elebiduna, eta orrialde hauek izango ditu (plan orokorren antzeko prozesuetan erabilitakoak dira):

- **Sarrerako orrialdea edo landing page**, Pasaiako HAPO zer den, zer arautzen duen eta zein fase dituen, bi minutu baino gutxiagoan eta oso modu bisualean azaltzen duen informazio-bideo batekin.
- **Informazio-orrialdea**: edukiak gaien eta itemen arabera (edo funtsezko gaien arabera) azalduko dira, herritarrek erraz ulertzeko jada egokituak. Ulermena errazten duten piktogramak erabiliko dira.

- **Parte hartzeko orrialdea:** aurrez aurreko kanalei eta kanal digitalei buruzko informazioarekin, saioen egutegiarekin eta parte hartzeko plataforma digitalerako estekarekin.
- **Parte-hartze digitaleko plataforma:** Parte hartzeko prozesuaren emaitzak plataforma digitalean ere erakutsiko dira, gainerako kanalen modu berean, gaien eta itemen arabera antolatuta, fasearen arabera.
- **Berrien eta dokumentazioaren orrialdea:** prentsa-oharrak jasoko dira bertan, baita HAPOn idazketa-prozesuan zehar landutako dokumentuak ere.

3.3.6 Aurrez aurreko parte hartzeko saioak

1. eta 2. faseetan aurrez aurre parte hartzeko saioak egingo dira.

Hainbat eragile-talde gonbidatuko dira: herritarrak banaka edo elkarteetan antolatuta, emakumeen elkarteak, adinekoak, gazteak... Baita ekonomia-arloko eragileak, udal-teknikariak, ordezkari politikoak eta Plangintzako Aholku Batzordea ere. Lehendik dauden foroak aprobetxatuko dira, ahal den heinean.

Aurrez aurreko saioetan, parte-hartzaileek taldeka lan egingo dute, batez ere, adostasun kolektiboa lortzeko dinamika desberdinak erabiliz, ariketa bakoitzerako denbora eta eragileen arteko harremanak zainduz.

Aurreko puntuan definitutako parte-hartze eta komunikazio-kanaletan azaldu bezala, aurrez aurreko saio eta ekintza hauek leku egokietan garatuko dira, hala nola, udal-zentroetan, Udaletxean, etab. Horretarako, beharrezko logistika erabiliko da, baliabide teknikoei (ordenagailuak, plataforma digitala, liburuxkak, kartelak, etab.) eta pertsonalei (hirigintzan lan egiten dute eta dinamizazioan adituak diren langileak) dagokienez.

3.3.7 Haur eta gazteentzako ekintzak (Sailarteko Batzordea)

Era berean, HAPOn faseetan zehar, haur eta gazteekin ekintzak egingo dira, egungo kanalak erabiliz, Sailarteko Batzordearen bidez.

3.3.8 Banakako kontsultak. Herritarren arreta zerbitzua. Aurretiko hitzordua.

Beste Plan Orokor batzuk egiterakoan izandako esperientzian oinarrituta, erredaktore-taldeak aurrez aurreko laguntza pertsonalizatua eskainiko du. Jendaurreko Erakustaldia martxan jartzen den lehen egunetik, aukera emango da erredaktore-taldearekin hitzordua eskatzeko. Jasotako eskaerak aztertu ostean, pertsona bakoitzari egun eta ordu bat esleituko zaio hitzordurako. Elkarrizketa horiek behar den denboran gauzatuko dira, horretarako behar diren egunetan hitzorduak kontzentratuz. Hitzordu bakoitzerako 20-30 minutu aurreikusten dira.

Hitzorduen prozesu horri hasiera emango zaio Jendaurreko Erakustaldiarekin batera (5. eta 7. faseetan). Asmoa da, alde batetik, kontsultak, proposamenak eta informazioa modu pertsonalizatu batean ematea, eta, bestetik, prozesuari zentzuzko irizpide bat ematea, jendepilaketak, itxaronaldiak eta deserosotasunak ekidinez.

3.4 KOMUNIKAZIO-PLANA HAPO-N ZEHAR

3.4.1 HAPOn komunikazio-helburuak

Komunikazioa funtsezkoa da Pasaiako HAPOn parte-hartze prozesua aurrera eramaterako eta parte-hartze informatu bat izateko. Horregatik, komunikazioaren helburuak honakoak dira:

1. Eragile eta talde desberdinei HAPOn buruzko **informazioa ematea**, bere fase eta edukien gainean.
2. Ahalik eta jende-kopuru handien eta anitzena **parte hartzera gonbidatzea**.
3. Parte hartzeko fase bakoitzaren osteko emaitzak **ezagutaraztea eta zabaltzea**.

3.4.2 HAPOn komunikazioaren ikuspegi orokorra

Fase desberdinetan erabiliko diren komunikazio-kanalak digitalak eta analogikoak, gertukoak, erabilgarriak, sormena bultzatzeko modukoak, askotarikoak eta elkarren artean osagarriak izango dira. Horretaz gain, elkarlanean eta ikuspegi berarekin landuko dira.

Gainera, edonork ulertzeko moduko hizkuntza erabiliko da, betiere ikono eta piktogramak erabiliz edukia ulertzea, identifikatzea eta ulergarritasun kognitiboa errazteko.

Fase bakoitzean, eragileen eta adierazleen maparekin batera, parte hartzeko eta komunikatzeko bideak zehaztuko dira, aniztasuna sustatzeko. Batzuetan, eragileei foroetara gonbidatuko zaie (udal-lokaletan egingo diren informazio- eta parte hartzeko saioetara) eta, bestetan, saioak elkarre edo kolektibo jakinen zentroetan antolatuko dira (adibidez, Lanbiden, euskaltegietan edo KZgunean, bereziki mobilizatzen ez diren kolektiboen kasuan).

3.4.3 Hizkuntzaren erabilera

Komunikaziorako eta parte hartzeko material guztia eta dinamizazioa egoki landuko da, eta **hizkuntza ez sexista erabiliko da**, indarrean dagoen araudiaren arabera. Gainera, **elebitan** egingo da, euskaraz eta gaztelaniaz, EAEko bi hizkuntzen ofizialtasuna aintzat hartuta.

Herritarrei zuzendutako argitalpen, ohar, jakinarazpen edo bestelako idazki guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, eta euskarari lehentasuna emango zaio. Horretarako, letraren tamaina eta testuaren kokapena zainduko dira. Gaienera, parte-hartzea dinamizatuko duten taldekideek esperientzia dute euskaraz eta gaztelaniaz dinamizatzen.

3.4.4 Komunikazioko materialak, tresnak eta kanalak

Komunikazioko materialak, tresnak eta kanalak ondokoak dira:

KOMUNIKAZIOKO MATERIALAK, TRESNAK ETA KANALAK		
1	HAPOn logoa. Erraz hauteman daitekeena eta prozesuaren funtsarekin eta herritarrak etorkizuneko Pasaian eta horren antolamenduan inplikaturatuta sentitzeko beharrezkin lotuta.	logoa
2	Ikono eta material bisualak informatzeko eta aurrez-aurreko zein parte-hartze digitalerako. Material hau Planak jorratzen dituen gaiekin lotuta egongo da (besteak beste, etxebizitzarekin, ekipamenduekin, mugikortasunarekin, ingurune naturalarekin, etab.).	gaiei lotutako ikonoak, fasearen arabera
3	Prozesuaren webgunea, aurreko atalean definitutakoa.	webgunea
4	Prentsa-oharrak eta prentsaurrekoak, HAPOn faseetan zehar.	Prentsa-oharrak
5	Udal webgunerako eta sare sozialetarako (izatekotan) edukia.	Edukia webgunerako eta sare sozialetarako
6	Liburuxkak eta informazio-kartelak, beharrezkoa den faseetan, prozesuaren gaineko informazioarekin, parte hartzeko datei eta kanalei buruzko argibideak emateko eta herrian zehar banatzeko.	Informazio liburuxka eta kartelak
7	Gonbidapen e-mailak eta telefono-deiak, talde jakinekin harremanetan jartzeko.	
8	Erakusketak (bisita gidatuekin) 4. eta 7. faseetan.	

9	Informazio- eta parte hartzeko saioretarako aurkezpenak , prozesuari eta gai eta eduki garrantzitsuenei buruzko informazioarekin.	aurrez aurreko saioretarako aurkezpenak
10	Informazio-saioak , 1.,2.,4.,7., 8. eta 9. Faseetan.	
11	Informazio-bideoa , 2 minutu baino gutxiagoan eta bisualki, oso modu eraginkorrean, Pasaiako HAPO zer den, zer helburu duen, zer arautzen duen eta parte-hartze prozesuko gaiak zeintzuk diren azaltzeko. Herritarrek parte hartzera gonbidatzea ere izango da bere helburua.	bideoa
12	Bandoak atarietan , Pasaian informazioa zabaltzeko komunikazio-kanal ona izanez gero.	
13	Artikuluak udal-aldizkarian edo tokiko prentsan; edo antzerako hedabideetan.	artikulu(k) tokiko prentsan.
14	Partaidetzari buruzko memoria/txostena , egikaritze-laburpen bat barne. Dokumentazio grafikoa eta idatzia izango du, baina oso bisuala izango da. Helburua da herritarrei emaitzak azaltzea eta zabaltzea. 1., 2., 4, eta 7. faseetan aurreikusten da.	Memoria/txost en bat

3.5 PARTAIDETZAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

HAPOren erredakzio-prozesuan zehar Pasaitarren parte-hartzea ahalik eta zabalena eta anitzena izateko asmoz, partaidetza-estrategiak honako eginkizunak izango ditu:

- Eragileen mapa definitzea.** Mapa horrek biztanleriak bere baitan dituen kolektibo eta profil guztiak hartuko ditu kontutan: banakako herritarrek zein kolektibo edo elkarteetan parte hartzen dutenak, emakumeen kolektiboak, adinekoak, gazteak eta haurrak. Horiez gain ekonomia-sareko eragileak, udal-teknikariak, ordezkari politikoak eta Plangintzaren Aholkularitza Batzordea eragile-maparen zati izango dira. Bestelako eragileak honako hauek izan daitezke ere: langabeak, etorkinak, etab.
- Eragile-talde bakoitzerako parte-hartze kanalak definitzea:** aurrez aurrekoak, formatu eta kokapen ezberdinetakoak, eta digitalak. Foro berriak sortuko dira eta elkarte- eta ekonomia-sareetan jada existitzen direnak aprobeztatuko dira (bizilagun-elkarteak, kirol-elkarteak, ingurumenari lotutakoak, etab.).

3. **Eragile-talde bakoitzerako komunikazio-kanalak eta deialdiak definitzea:** prentsa-oharrak eta prentsaurreko saioak, webgunea eta udal-aldizkaria (edo antzekoa), e-mailez bidaltzeko gonbidapenak, telefonozkoak, postaz bidalitako liburuxkak, kartelak, eta portaletako bandoak.

Azpimarratu baherra dago da HAPOn parte-hartze prozesuan zehar etengabeko ebaluazioak duen garrantzia; ebaluazio kualitatiboa, kuantitatiboa eta parte-hartzailea. Horretarako, honako hauek planteatu dira, HAPOn faseetan zehar berrikusia ahal izango direlarik:

1. Prozesua ebaluatu ahal izateko adierazle batzuk definitzea: parte-hartzaileen kopurua edota parte-hartzaileen aniztasuna (generoaren, adinaren, auzoaren eta eragile-motaren arabera).
2. Adierazle horiek etengabe ebaluatzea: saio bakoitzaren ondoren, fase bakoitzean zehar eta horien amaieran. Gabeziaren bat atzemango balitz (eragileren baten falta edota parte-hartze txikia, esaterako), neurri zuzentzaileak planteatuko lirateke (adibidez, komunikazio-mota jakin bat hobetzea).

3.5.1 Jarraipen-adierazleak eta partaidetzaren ebaluazioa

JARRAIPEN-ADIERAZLEAK ETA PARTAIDETZAREN EBALUAZIO	
10 1	Parte-hartzaileen kopurua (mobilizatu diren lagunak)
10	Parte-hartzaileak kanalaren arabera <ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurreko saioak • Partaidetza digitala • Karpak • Banakako kontsultak (aurretiko hitzordua)
10 3	Parte-hartzaileak generoaren arabera Emakumezkoak, gizonezkoak eta beste identitate batzuk
10 4	Parte-hartzaileak adinaren arabera < 18, 18-30, 31-45, 46-65, > 65
10 5	Parte-hartzaileak eragile-motaren arabera: (eragile bakoitza talde bat baino gehiagoren parte izan daiteke) <ul style="list-style-type: none"> • Pasaian bizi diren pertsonak (“Pasaian bizi naiz”) • Herriko elkarteak (“Pasaiaiko elkarte baten parte naiz”) • Pasaian lan egiten duten pertsonak (“Pasaian egiten dut lan”) • Udal-teknikariak • Udal-ordezkarriak
10 6	Parte-hartzaileak barrutika: <ul style="list-style-type: none"> • Antxo • Donibane • San Pedro • Trintxerpe • Beste udalerrri bat

Parte-hartzaile eta ekarpenen araberako neurketa

Partaidetza etapetan zehar jarraipena eta ebaluazioa egingo da; horrela, gutxien parte-hartze ari diren kolektiboen partaidetza sustatzeko komunikazioko edo parte hartzeko ekintzak moldatu ahal izango dira. Parte hartzeko etapa bakoitzaren ostean, bukaerako txostenean emaitzak aztertu eta ustiatuko dira, grafikoen bidez ahal den heinean.

Parte-hartzaileen adierazleei buruzko informazioa bildu ahal izateko asistentzia-orriak erabiliko dira aurrez aurreko saioetan, eta parte-hartzailearen profilari buruzko galderak egingo dira parte-hartze digitalean, elkarrizketetan eta paperezko galdetegiak. Ekarpenei loturiko adierazleak honakoak izango dira:

- Ekarpen gehien izan dituzten gaiak
- Interes gehien sortu duten gaiak (lehenestekoak)
- Ekarpenen laburpena (kualitatiboa), itemka eta gaika

4. GENERO-IKUSPEGIA ETA INGURUMEN-KUDEAKETA HAPOn PARTAIDETZAN

Pasaia HAPOn partaidetzak hainbat neurri ezartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko honako arlo hauetan: enplegua lortzea, sailkapen pertsonala, sustapena, iraupena, prestakuntza, ordainsariak, lan-kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako, ezarritakoaren arabera.

Hori, batetik, HAPOn genero-ikuspegia txertatzeko edukietan gauzatzen da, eta, bestetik, lan-bizitza, bizitza pertsonala eta familiakoa bateratzeko neurrietan, bai parte-hartzaileei bai kontratua gauzatzen dutenei dagokienez.

Era berean, HAPOk hainbat neurri proposatzen ditu ingurumen-kudeaketa hobetzeko eta HAPOn parte hartzeko ekintzen eragina murrizteko.

4.1 HAPOn GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EDUKIAK

HAPOn parte hartzeko une bakoitzean landu beharreko edukiek, zuzenean edo zeharka, HAPOn genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko alderdi eta gai garrantzitsuak jasoko dituzte.

HAPOn erredaktore-talde teknikoak zein parte-hartzea gidatuko duen aditu-taldeak esperientzia handia dute alor honetan.

4.2 LAN-BIZITZA, PERTSONALA ETA FAMILIAKOA BATERATZEKO NEURRIAK

4.2.1 HAPOn parte hartzeko ekintzekin zerikusia duten neurriak

HAPOn parte-hartze fase desberdinetan zehar honako ekintza hauek aurreikusten dira norbait (haurrak, adinekoak, etab.) zaintzen dutenek parte hartzea errazteko:

1. **Kontziliazioa errazteko informazio-hitzaldien eta parte hartzeko saioen ordutegia:**

Sarritan, parte hartzeko saio publikoak lanorduetatik kanpo, 19:00etatik 21:00etara, egiten dira, eta horrek zaildu egiten du familia-kontziliazioa. Beraz, saioak 18:30etik 20:00etara edo 20:30era egitea proposatzen da. Gainera, beren kargura haurrak edo adinekoak dituztenak joan ahal izatea ahalbidetuko da.

2. **Haurrak eta adinekoak informazio-hitzaldietara eta parte hartzeko saioetara joateko aukera:** horiek beren kargura dituztenak haiekin joan ahal izango dira, partaidetza-taldeko langileren batek zainduko baititu. Lan-taldearen ohitura da partaidetza prozesuetan.

3. **Aukera hori dagoela jakinaraztea** (karteletan, webgunean eta gainerako komunikazio-materialean), parte hartu nahi eta beraien ardurapean beste norbait dutenak etortzera anima daitezten.

4. Bere ardurapean (normalean, emakumeak) norbait dutenen partaidetza **ebaluetzea eta jarraitzea**, hala badagokio, partaidetza inklusiboa eta berdinzalea errazteko neurriak indartzeko.

4.2.2 Kontratupeko langileekin zerikusia duten neurriak

Lan-taldeak honako ekintza hauek egingo ditu lana, bizitza pertsonala eta familiakoa hobeki uztartzeko:

1. **Ordutegi-malgutasuna**, batez ere eskolako oporraldietan eta, nolana ere, familia dela eta edota arrazoi pertsonalengatik.

2. **Telelana egiteko aukera** denboraren % 20an (lanegun baten baliokidea).

3. **Seme-alabak zaindu ahal izateko lanaldi jarraitua**, egunero edo asteko egun batzuetan, 8:00etatik 15:00etara edo 9:00etatik 16:00etara.

4. **Lanaldi trinkoa ostiraletan eta jai bezperetan**, 9:00etatik 15:00etara.

5. **Jateko eta janaria berotzeko tokia izatea** bulegoan, eta bazkaltzeko denbora 30 edo gehienez 60 minutura murriztea.

4.3 JASANGARRITASUNARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO EDUKIAK

HAPOn parte hartzeko une bakoitzean landu beharreko edukiek, zuzenean edo zeharka, jasangarritasunari buruzko alderdi eta gai garrantzitsuak jasoko dituzte, baita klima-aldaketa arintzeari eta horretara egokitzeari buruzkoak ere.

4.4 INGURUMEN-KUDEAKETA HOBETZEKO NEURRIAK

Pasaiako HAPOn faseetan egiten diren partaidetza-ekintzetan, ingurumen-kudeaketako neurri hauek hartuko dira:

1. **Paper-kontsumoa murriztea, teknologia berriak erabiliz:** partaidetza digitalerako plataformak ingurumen-kostua murriztuko du, herritarrei egindako galdeketan paper-kontsumo masiboa saihestuko baitu.
2. **Iturri arduradunetatik datorren papera erabiltzea (EU Ecolabel zigilua, FSC zigilua eta PEFC zigilua),** bai bulegoan bai kanpoko hornitzaileekin material analogikoak inprimatzerakoan (kartelak, azalpen-dokumentua/liburuxka).
3. **Formatu handiko erakusketa-panel jasangarriak:** disolbatzailerik gabeko tintadun ehun-materiala eta PVCrik gabeko euskarriak, berrerabilgarriak.
4. **Joan-etorriak murriztea:** lanaren jarraipena egiteko eta lana koordinatzeko, bideokonferentziak bezalako baliabide teknologikoak erabili ahalko dira, lantaldearen joan-etorri motordunak murrizteko (bilerak zuzenean egiteko aukera alde batera utzi gabe).